

ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko irailaren 13a / 597. zenbakia



Mugarriz mugarri

AEDren eskutik, Arrasateko inguruak bisitatzeko aukera izango da domekan

ORAIN ETA HEMEN: AITA LUKAS GOGOAN/6 • GRIPEAREN TXERTATZE KANPAINA/7

Euskara "txinoa" bada zuretzat


...eta euskara zeurea egingo duzu.

Ni txinin, txirrin,
txirrinduila, dulai...



UDAL
EUSKALTEGIAK
...

Ni txirrinduan
nabil.



HABEren dirulaguntzaz

UDAL
EUSKALTEGIAK



ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazuri plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

EUSKALDUNTZE maila
guztiak, ALFABETATZE eta
EGA.
Ikastaro bereziak:
merkataritza, sakontze,
Arrasateko euskara...

ERRITMOAK
2 ordu egunero (Erritmo bereziak ere baditugu)
BEKA SISTEMA DAUKAGU.
BULEGO ORDUTEGIA
10:00 - 13:00 eta 15:00 - 19:00
MATRIKULALDIA: Irailaren 2tik 20ra.

HIRIAN, AUTORIK GABE



Eztabaidatu eta hausnartzeko astea European

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ALDEKO ASTEA ARRASATEN (irailaren 16tik 22 arte)

Martitzena, hilak 17 Hitzaldia-eztabaida
"Mugikortasuna eta ingurumena hiriguneetan"

Eguena, hilak 19 Hitzaldia-eztabaida
"Debarroan mugikortasun jasangarriago baten aldeko proiektuak: tranbia eta bidegorrien sareak"

* Hitzaldi biak Monterron Kultura Etxean izango dira, 19:00etan

Egubakoitza, hilak 20 Arrasate oinezkoentzat
Goizeko 9:00etatik aurrera. Oinezkoen gune bat sortzea Garibai etorbidean.

13:00etan. Jendearentzako manifestua
"Arrasate mugikortasun jasangarriaren alde"

Arratsaldeko 5etatik aurrera. Haur eta kultura ekintzak

Domeka, hilak 22
"Herrian, autorik gabe"ko eguna European



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

KALEINKESTA/ Laster umiek eskolan hasiko die. Diru larregi gastetan dogu?



ANE MARKINA
Langillie



GARBIÑE HERIZ
Langillie



ROBERTO PEREZ
Langillie



FATIMA SÁNCHEZ
Etxeko langillie



JUAN CARLOS BASTARDO
Langillie



JOSÉ JULIO HERIZ
Langillie

Ondiokan ez dogu diru askorik gastau, baiñe larregiko gastue izeten da. Aproposea da aurreko urtietako liburuek aprobetxetie, baiñe urte batetik bestera aldatu egitten dittue.

Erosten danaren arabera izeten da hori. Geuk lehen-gusu nagusixen liburuek aprobetxetan dittugu, eta ez dogu arropa gehixagorik erosten. Ahalik eta gastu txikixena egitten dogu.

Liburuen truke diru morderue eskaketan dabitz, eta hiruzpalau ume daukienek diru morderue gastau biherria daukie. Ez litzakez liburuek aldatu biherko, nagusixek gatziei ixteko.

Bai, izugarrixe da. Geuk ondiokan ume txikixe daukogu eta ez jaku tokau, baiñe larregikue da. Liburuek merketu egin biherko littukie eta urte batetik bestera ahal dan gutxixen aldatu.

Zoritzarrez, hola dago eta ez dauko buelta haundirik, baiñe egixe da ume asko daukien familixendako problema haundixe dala. Denek apur bat merketu biherko leukie liburuek.

Hola dago, baiñe diru askotxo da, duda barik. Beste gauza batzuetarako dagozen moduen, liburuek erosteko be laguntzaren batzuk emon biherko leukie, diru morderue dalako.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK BIRIBILUNE TXUKUNA Aste honetan ez dugu txisturik sartuko. Irakurle batzuek jakinarazi digutenez, Etxe Txikien eta eskualdeko ospitalearen artean dagoen biribilunearen belarra txukundu eta biribilunearen erdian makina bat jarri dute. Makina hori Cerrajeran zabalik dagoen erakusketarekin lotuta dago, herriko iraganarekin, hain zuzen ere, eta hainbat herritarri ideia ona irudituta zaie.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLAK /11

KIROLA /12

Osoko bilkura martitzenean

Martitzenean osoko bilkura izango da. Besteak beste, Egitamu Orokorra izango dute berbagai.

Mondrako entrenatzailea

Kirolen atalean Josu Zubia Mondra futbol taldeko entrenatzaileari elkarrizketa egin diogu.

Domekan, Besaide Eguna

Domekan Oroi-men Eguna ospatuko dute Besaiden. Guztiok zaudete domekarako gonbidatuta.

ASTEKODATUA

500

UME BATAIATU ZITUEN EGUN BATEN AITA LUKASEK

Joan den astean zendu zen arte, urtetan San Frantzisko parrokiako fraide izan da Aita Lukas. Iraganean Kuban izan zen Aita Lukas, eta han zegoela, egun baten 500 ume bataiatu zituen.

IRAKURLEAREN TXOKOA

“ Nik ere gogoratzen dut irailaren 11 markatzen zuen egun hura. Asteartea zen, eguzkitsua, eta nire ibilbide profesionalen hasiberri samarra nintzelako itxaropen eta indarrez beterik nindoan etxetik lantegirantz. Lagun batek gerarazi ninduen bidean ‘entzun al dek Txilekoa?’ itaundu zidan. Ez nekien ezer. Hogeita bederatzi urte eman dira ordudanik. 1973ko irailaren 11 hartan, Pinochet jeneralak estatu kolpea eman zuenetik, hain zuzen. Baina gaurko komunikabideek ez digute efemeride horren berririk emango, nahikoa baitute iaz jazotakoaz espazioak betetzea. 1973an, CIAk elikaturiko gorrotoak Salvador Allende Txileko lehendakari sozialista erail zuen, La Moneda lehendakaritza-jauregian”

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
‘Euskaldunon Egunkaria’/02-09-11

HERRITARREN BERBAK/ Itziar Ezpeleta



Zure lagunak ‘Haritzetan’ elkartuko gara

Kaixo, zer moduz? Ondo? Besarkada bat... Horiek dira egun hauetan elkartzerakoan esaten ditugunak. Urte osoa oporrekin ametsetan, helburu barik, lasai, jende berria ezagutzen, leku berrietan...

Baina normaltasunean mugitzen hasi gara, *Goienkaria* ere martxan hasi da berriro eta nire txanda heldu da. Justu, nire idatzia irailaren 15eko asteburuan argitaratuko dute, nire bihotzean odolez idatzita dagoen egunean. Orain dela sei urte, Arrasateko herria Arantzazura erromes joan zen. Ni ere joateko nintzen, baina bezperan txarto sentitu nintzen: 39ko sukarra neukan. Akaso nire gorputzak sumatu zuen zorigaitza? Telefono deia, istripua... ez nintzen Arantzazura igo. Txagorritxuko Ama Birjinaren Ospitale barruan igaro nuen arratsalde hura. Berak ere bazekien zer sentitzen nuen... Haritz, zure azkeneko besarkada sentitzen dut eta zure

usain gozoa usaintzen dut. Zuk esaten zenuenez, txukun-txukun joan zinen. Dagoeneko zure gorputza ez dago gure artean, baina zure presentzia gure artean dago. ‘Haritzeta’-tik zure berotasuna, irribarrea, kantua bidaltzen duzu eta guri iristen zaigu. Haritz, urtero bezala,

irailaren 15ean zure lagunak eta senitarte-koak ‘Haritzeta’-n elkartuko gara. Zuk elkartuko gaituzu eta goxo-goxo egongo gara Udalaitez magalera, ‘Haritzeta’-ra, erromes joaten garenok”

poesia gogoratu barik:
*Betikotasunean
bakezko besarkada batean
han
gailurrean
apal-apal
haize zabalak bildurik
aske,
ase,
bizirik,
dirauk, hik
guztion izpi,
guztion haitz
haizen: Haritz*

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 13
Corcuera. Aranbarri 1. 943 79 22 26

ZAPATUA, 14
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30

DOMEKA, 15
Español. Araba etorb. 17. 943 79 18 65

ASTELEHENA, 16
Azkoaga. Iturriotz 943 79 79 99

MARTITZENA, 17
Corcuera. Aranbarri 1. 943 79 22 26

EGUAZTENA, 18
Irizar. Erguin 11. 943 79 12 39

EGUENA, 19
Amezua. Santa Marina 32. 943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

Arrasate
Astelehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate. 943 79 71 99

SUHILTAILEAK
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

MONTERRON LIBURUTEGIA
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

ERROMESALDIA ARANTZAZURA
Etzi, domeka, Arantzazura erromesaldia egingo dute. Oinez doazenak 06:30ean irtengo dira Kontzezinotik; autobusez doazenak 09:30ean, Musakolatik eta Garibaitik (txartelak Viajes Ecuador agentzian hartu beharko dira). Eta autoz doazenak 10:00etan irtengo dira, Gesaltzan oinezkoekin bat egiteko. Aurretik, eguenean, egubakoitzean eta zapatuan meza bereziak izango dira.

MUGIKORTASUN JASANGARRIA
Irailaren 16tik 22ra Mugikortasun Jasangarriaren Aldeko Astea egingo dute Arrasaten. Martitzenean, *Mugikortasuna eta ingurumena hiriguneetan* izango da berbagai; eguenean, *Debarroan mugikortasun jasangarriago baten aldeko proiektuak: tranbia eta bidegorrien sareak* izango da gaia. Bi berbaldi horiek Monterronen izango dira, 19:00etan. Egubakoitzean eta domekan beste ekitaldi batzuk egongo dira.

ALKARTASUN EGUNA
Irailaren 22an Alkartasun Eguna ospatuko dute Altsasun. Arrasateko EAk autobusa antolatu du, 11:00etan, ohiko lekuetan. Deitu irailaren 18a aurretik 943 71 27 88 telefonora.

AEDrenAGENDA

ZAHARBERRIREN DEIA
Dagoeneko Zaharberrik zabandu du izena emateko epea. Euskaldun berriek euskara praktikatzeko eta euskaldun zaharrek besteei laguntzeko aukera polita.

AED, GAZTE ERAGILE BILA
AEDk gazte eragile bat kontratatu gura du egun erdiko jarduna egiteko. Bidali curriculum AEDra.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Udalak gaztetxea arautu gura zuen


Gaztetxe inguruko bizilagunen kexak zirela-eta, Udalak zenbait neurri hartzea erabaki zuen, eta gaztetxeekin batzarra deitu zuen. Eztabaidarako gaiak, bete beharreko ordutegia eta zarata. Hain justu ere, arau horiek beste edozein lokalek betetzen ziteztenak ziren.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kolorga"

Kolore gabea, kolorea galdu duena. *-Kolorgia, kolore zurixa ero kanbixautako koloria; babak eta, urak pasautakuan, koloria kanbixautakuan, kolorgak. Personia be bai, gaixuak eta: "kolorgatuta dao".*



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Martitzena, 10 **9°C**

MAXIMOA
Martitzena, 10 **27°C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **24,5 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 4	18 °C	17 °C	8,4 l/m²
Eguena, 5	20 °C	14 °C	1,4 l/m²
Egubakoitza, 6	24 °C	12 °C	0,1 l/m²
Zapatua, 7	26 °C	12 °C	10,7 l/m²
Domeka, 8	24 °C	15 °C	3,9 l/m²
Astelehena, 9	21 °C	12 °C	- l/m²
Martitzena, 10	27 °C	9 °C	- l/m²

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Aitziber Aranburuzabala

"Edozein eratako saioak egin ditzakete entzuleek Arrasate Irratian"

Hastear da Arrasate Irratiaren denboraldi berria. Irailaren 30ean ekingo die irratia udazken-neguko irratsaioei, eta arrasatearrek irrati saio bat egiteko aukera izango dute. Aitziber Aranburuzabala Arrasate Irratiko arduradunari galdetu diogu zein baldintza bete behar dituzten irratsaio bat egin nahi dutenek.

-Urtero moduan, arrasatearren partaidetza ari zarete eskatzen, ezta?

Hala da bai. Gauetan kolaboratzaileen irratsaioak izaten ditugu. Hortaz, irratiari aritu nahi duten herritarrek parte hartzeko aukera izango dute.

-Baina zelako saioak izan beharko lirateke?

-Edozein eratakoak. Musika saioak izan daitezke, baina beste estilo batekoak ere.

-Eta musika saioa egin nahi bada?

-Bada, musika mota askotako saioak izan daitezke. Adi-

bidez, heavy estiloko tartea edo euskal musikaren ingurukoak. Onena zera da irratiari aritu nahi duenak zelako irratsaioa egin nahi duen guri jakinaraztea. Ez du dena finkatuko ekarri behar. Guk lagunduko diogu buruan duen ideiarekin irratsaioa zehazten. Ez du profesionala izan beharrik.

-Gauetz izango dira?

-Bai, baina norberaren ordutegiaren arabera moldaketak egin daitezke.

ASTEABIHITZETAN

Frantziskotarrak Uarkapeko etxeetara

Datorren astelehenean hasiko dituzte Seber Altube plazan dagoen frantziskotarren komentua eraberritzeko lanak. Ordurako lekua utzi beharko dute 48 urtean han bizi izan diren frantziskotarrak. Horretarako, hitzarmena sinatu dute Udalarekin. Eta bizpahiru urte pasatuko dituzte Udalak utzitako Uarkapeko etxebizitzan. Horrez gain, Udalak beste bi lokal ere utzi dizkie euren lanetarako. Eta behin komentuan eraberritze lanak eginda, eraikinaren laurden bat-edo izango da frantziskotarrarako.

Aztertze eskaera

Makatzena Etxegintzak SRL izeneko enpresak Makatzenen garajeendako eraikina egiteko lanen ondorioz, hango etxebizitzan atzeko aldean lur mugimenduak izan dira. Hori dela eta, Arrasateko Udalak hamabost eguneko epea eman dio enpresa horri gertatutakoa aztertu eta zergatiaren berri emateko. Sortutako arazoa zelan konpon daitekeen ere proposatu beharko du Makatzena Etxegintzak SRL enpresak.

Adimen anitzak aztertzen

Oraingo astean izan dute Arrasateko umeek ikasturte hasiera. Baina, hori baino lehen, joan den astean, Arizmen-di Ikastolako irakasleak eskolan izan ziren, adimen anitzen teoriaren gaineko jardunaldietan. Marisol Justo de la Rosa Valladolideko hezitzailea izan zuten irakasle. Hark zera esan zuen: "Gadner irakasleak azaltzen digu pertsona guztiok inteligenteak garela eta inteligente izateko zazpi-modu desberdin ditugula. Ondorioz, ikastaro honetan ari gara ikusten zelan garen inteligente gu hezitzaile moduan, bai eta zelan estimula ditzakegun umeak oso inteligente izan daitezen zazpi modu ezberdinetan".



Kexuak Arrasateko Hiper Eroskin

Arrasateko Hiper Eroskin geroago eta kexu gehiago ari dira jasotzen elbarriendako aparkalekuak direla-eta. Kexuon arabera, mota horretako aparkalekuak ez dira errespetatzen, batez ere, asteburuetan. Hiper Eroskiko arduradunak jabetu dira arazoaz eta hasi dira konponbidea ipintzen.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Hausnartu beharrean...

Irailaren 11 famatua joan zaigu dagoeneko, eta, harekin batera, urteurren berezi horri nazioartean eta gurean bertan eman dioten *pelmada mediatikoa*.


Gogora ekarri gura nuke joan den eguaztenean bertan *Euskaldunon Egunkaria*-n Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzitakoaren apunte bat. Jose Mari data horren beraren beste urteurren

garrantzitsu bat ekarri zigun gogora: 1973. urteko irailaren 11n, Augusto Pinochetek, CIAren laguntzarekin, Salvador Allende hil eta Txilen estatu kolpea egin zuela. *Euskaldunon Egunkaria*-n aipatutako beste urteurren hori aspaldikoa den arren, New Yorkeko eta Washingtongo gertaerekin zuzenki lotuta dago. AEBetako agintariek XX. mendean

mota horretako ehunka ekintza bultzatu izan dituzte, agerian zein ezkutuan.

Iaz, irailaren 11n jazotako gertaera latzek AEBetako eta beste hainbat estatuetako gobernuak hausnarketa sakona egitera bultzatu beharko lituzke. Gerora, Afganistanen egin dituztenak eta seguruenik laster Irakekin egingo dituztenak ez dira bide egokiak. Arazoen sintometara jo beharrean, arazozen sustraietara jo beharko dute, egunen baten.

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

SEBER ALTUBEKO LANAK, HERRIKO LAN IKUSGARRIENAK

Dagoeneko hasi dituzte Seber Altuben egingo duten kultura etxeko lanak, eta horren erakusle 45 metro luzeko garabia da. Lanak egiteko, garabia klaustro barruan jarriko dute, baina garabi hori jartzeko beste garabi baten laguntza behar da, eta martitzenean Seber Altubera hurreratu zirenek izan zuten zere-

kin entretenitu. Garabiak ikusgarriak dira, eta herriaren erdian jarri dituztenez, jende asko gertatzen da lanei begira. Urte eta erdi beharko da oraingo eraikina eraberritu eta kultura etxe berria egiteko. Berritze lanak egiten hasi aurretik komentua hustu egin beharko dute.

Jesusi Etxebarria

MUSIKA ESKOLA

2002-2003 IKASTURTEKO MATRIKULA EPEA ZABALIK: 9tik 30era

SOLFEOA, ABESBATZA, PIANO, AKORDEOIA, FLAUTA, TXISTUA ETA GITARRA KLASIKOA, ELEKTRIKOA ETA BAXUA (modalitate guztietan - klasikoa, rock-a, blues-a, modernoa, etab), solfeoz edo zifraz.

5 urteik aurrerako umeentzat eta helduentzat.

Izena emateko: 17:00-21:00, akademian astelehenetik egubakoitzera edo telefonoz.

Iturriotz 32, etxabea. Tel.: 943 79 17 67 / 652 71 38 28



LILURA

OIHALAK

Diseina ezazu Marixutarako zure gustuko soinekoa.

Esku-poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

GIZARTEA/ Aita Lukas Iruretagoiena frantziskotarra joan den abuztuaren 31n hil zen

Aita Lukas, Kubako Iraultzan askatasunaren alde egin zuen frantziskotarra, zendu da

UBANE MADERA



Orain dela bi urte bere lagun frai Rufinok bezala, oporretatik bueltan Aita Lukas Iruretagoienak utzi egin gaitu. 81 urte zituen frantziskotarra. 1969. urteaz geroztik, Arrasateko komentuan bizi zen: Baina lehenago oso ezaguna izan zen Kubako Iraultzan.

Abuztuaren 31n hil zen Aita Lukas, Galdakaoko ospitalean, Arrasateko komentuan 33 urte eman eta gero. Debarra zen jaiotzez, eta frantziskotarra; 11 urterekin (1932an) Arantzazuko santutegian eskolan hasi zen eta 1944. urtean abadetu zuten. Urtebete geroago, 1945ean, Kubara joan zen, eta han izan zen Aita Lukas 16 urtez, 1961.era arte. Fidel Castro boterera iritsi zen orduan eta Aita Lukas Kolonbiara bidali zuten. Hortaz, Kubako Iraultza bizi-bizi harrapatu zuen fraideak. Eta parte ere zuzen-zuzen parte hartu zuen Fulgencio Batista diktadorearen kontrako iraultza hartan.

SIERRA MAESTRAN RAUL CASTROREKIN

Aita Probintzialak bidalita joan zen Aita Lukas Kubara. Carlos Urbietak frantziskotar anaiak eta Aita Lukasen lagunak kontatu digun moduan, "128 euskaldun frantziskotar zeuden han, Arantzazuko fraideak. Indartsuak ginen orduan. Gero, Fidel Castrok kanpora bota zituen eta 20 bakarrik utzi zituen, tartean, Aita Lukas. Aita Lukas ez zuen bota. Urte batzuk geroago Kubara joan zenean, ate guztiak zabalik zituen, ez zioten aduanetan-eta miaketarik egiten, gauza guztiakin pasatzen zen...". Izan ere, Kubako Iraultza puri-purian zegoenean, Aita Lukas han ibili zen. Misiotetan zela, Kubako Santiagoko Serantes gotzainak aginduta joan zen Aita Lukas iraultzara. "Pentsatzen zuten iraultza oso ona zela, Batista diktadorea zen, ustelkeria handia zegoen... Batista bota egin behar zela, iraultza egin behar zela, eta uste zuten Fidel Castrok beste bide batetik joko zuela...". Horregatik eta iraultza katolikoa izango zelakoan babestu eta lagundu zuen elizak Batistaren kontrako altxamendua.

Horrela, Aita Lukasek uharte osoa zeharkatu zuen misioak ematen beste frantziskotar batekin batera. Carlos Urbietaren esanetan, "egun baten 500 bataiatu zituen, milaka ezkondu zituen, milaka bataiatu, milaka aitortu...". Eta geroago, 1956an, Fidel Castro abokatuak Sierra Maestrako mendietan babes harturik Batistaren kontrako gerrilla antolatu zuenean, Aita Lukas ere han izan zen, Sierra Maestran (goiko argazki txikian ikusten den moduan zebilen orduan, gerrillari itxura oso-oso zuela). Besteak beste, Raul



FRANTZISKOTARRAK

Hamasei urte eman zituen Aita Lukasek Kuban, tartean, hango iraultzan parte hartu zuen.

Raul Castroren agindupean zegoen Frank País izeneko Bigarren Fronteko kaperaua izan zen

Castroren agindupean zegoen Frank País izeneko Bigarren Fronteko kaperaua izan zen, Castro berak hala eskatuta. Eta dagoeneko

"Armak fedearenak izan ziren. Eta katolikook ditugun arma horiek lortu dute garaipena"

uharte osoan ezaguna zenean, Aita Lukas bera izan zen Kubako Amaren (Erruki Ama) irudia 15 hilabetearen punta batetik

"Berriro ere joango nintzateke, hango jendeari laguntasuna eman eta apur bat pizteko"

bestera eraman zuen Misiolari Ofiziala. Are gehiago, lan horregatik gorai patua izan zen behin eta berriz Aita Lukas. 1959. urtean,

Balio handiko gizaki sutua

Carlos Urbietak fraideak Aita Lukasen alderik indartsuena eta alderik makalena, biak ezagutu ditu. "Lehen, bederatzi urtez ezagutu nuen, forman zegoenean. Orain, berriro etorri naiz, eta bere makaltzea ezagutu izan dut". Baina, indartsu zegoenean, benetan sutua eta ikusgarria zela dio Carlosek. "Behin, Ostegun Santuan sermoi gogor-gogorra eta indartsua egin zuen eta Arantzazuko fraide batek, Aita Letonak esan zion: amodioari buruz hitz egin duzu amorru biziz". Carlos Urbietaren esanetan, Arrasaten ospetsu izan da lau gauzetan: sermoilari moduan; ahots handia zuen eta memoria ikaragarria. Organo jotzailea ere bazen; eta kantatzeko ahots ona ere bazuen. Horrela, hileta elizkizuna, urtemugak...asko apaintzen zituen. Bertsolaria ere bazela diosku



Carlosek. "bertsoak asmatzen zituen eta meza berezietan abesten zituen".

Santa Agedan ere ibiltzen zen. "Astean bi aldiz joaten zen Santa Agedako fraideak konfesatzera eta meza ematera". Eta, horrez guztiaz gain, euskarazko eskolak ematen zituen San Frantziskon; "herriko

jendeari, batez ere edadetuei. Emakumeak etortzen ziren, bereziki. 79an ekin zion eskolak emateari eta, gutxienez, 1988ra arte, jardun zuen horretan".

Carlos Urbietak balio handia zuen pertsona moduan gogoratzen du Aita Lukas. Lourdeserako erromesaldia ere berak antolatzen ei zuen, frai Rufinorekin, eta han, askotan hunkitu ditu erromesak, "jartzen zituen guztiak negarrez eta berak ere negar egiten zuen, batez ere Jesusen heriotza kontatzen zuenean".

Kubako *Unión* aldizkariak Aita Lukasek egindako eta esandako batzuk batu zituen, fraidearen omenez. Adibidez, Aita Lukasek honakoa esan zuen iraultzari buruz: "Nire armak fedearenak izan ziren. Eta benetan, katoliko guztiok ditugun arma horiek lortu dute garaipena. Baina, fedea, gudarien fede hori, Iraultzak aldarrikatzen zuen 'Askatasuna edo Heriotza' nahiarekin bat eginik. (...) Kubako seme askok, bizitzak eskuzabal eman dituzte askatasunarengatik. Askatasunaren eta justiziaren alde erori dira, ardura guztiakin; eta guk, matxinadako kideok eta anaioak, euren gurariak errealitate egingo ditugu, gure Iraultzaren bitartez".

ITZULERA

Gero, ordea, Fidel Castro boterera iritsi zenean, 1961. urtean, Kolonbiara bidali zuten, eta handik Dominikar Errepublikara, Kubatik irteten ari ziren kubatarrei laguntzeko. Handik berriro itzuli zen gurera, nagusiak aginduta, 1965. urte inguruan. Zarautzen eta Donostian izan zen eta 1968an Arrasatera bidali zuten.

Urte dezente geroago, 1994an, Kubara itzuli zen. "Urrezko ezteiak egin zituenean, opari moduan hara joaten utzi zioten". Eta han ikusi zuenak benetan tristatu zuen Aita Lukas. Hark esan zuen moduan, "han gose handia dago, hilabeterako ematen dietena astebetean jaten da-eta. Turistarendako denetik dago, baina herriarendako ezer ere ez". Eta Aita Lukasek ez zion errua blokeoari botatzen: "Ez du eragin handirik, beste herrialde batzuetatik nahikoa eros daiteke-eta; baina hango gobernuak ez du bat ere dirurik, eta Errusiatik jasotzen zen dirua amaitu denean, hango diruak ez du ezer balio eta soldadak lehenetan daude" (...) "Turistek beste ideia bat ekarriko zuten beharbada, baina ni herriarekin ibili naiz eta horixe da ikusi dudana. Berriz ere joango nintzateke, hango jendeari laguntasuna eman eta apur bat pizteko".

HERIOTZA

Baina ezin izan zen itzuli Arrasaterekin batera bigarren aberria zen Kubara. Gaixotu eta hiru hilabete eman zituen Bermeon, duela bi aste hil den arte. Aita Lukasek mezetan egin ohi zuen moduan, geuk ere hark asmatutako bertso batekin agurtuko dugu Aita Lukas:

Emaiozu Aita Lukasi
betiko atsedena
ta berak goza dezala
zeruetako zoriona.
Hauxe da orain bihotz-bihotzez
guk eskatzen dizuguna
ta sortuerazi
gure barrenean
zeruko itxaropena

Gripearen kontrako txertatzeko kanpaina hasiko da astelehenean

UBANE MADERA


Datorren astelehenean, gripearen kontra txertatzeko kanpaina hasiko da. Hilabete eta erdi arituko dira txertoak ematen, urriaren 31ra arte, hain justu ere. Anbulatorioaz gain, herriko zenbait auzotan ere hartu ahal izango dira txertoak.

Urtetakoari segituz, eta neguari begira, Osakidetza hasi da gripearen kontrako txertatzeko kanpainarekin. Astelehenean hasiko dira txertoak ematen eta urriaren 31ra arte jardungo dute. 65 urtetik gorako guztiendako eta gaixotasun kronikorekin bat duten 65 urtetik beherakoei (diabetesa, edo bihotzeko, biriketako, giltzurruneko... moduko gaixotasunak dituztenei) zuzendutako kanpaina da hau. Edurne Marañónek, Arrasateko ambulatorio-ko arduradunak adierazi duenez, "edadearengatik-eta, defentsa gutxiago dituztelako komeni da txertoa hartzea, batez ere, gaixotasunari aurrea hartzeko". Gaineratutakoaren arabera, txertoa hartu arren, gripea harrapatzen badute ere, "gripea samurragoa izango da eta ez dute zailtasunik izango". Berak esan digunez, abendua eta urtarrila izaten dira gripea errazen hartzeko hilerik txarrenak.

Kanpaina horren hamabosgarren aldia da eta Osakidetza 945.000 txerto gertu ditu Euskal Autonomia Erkidegorako. Edurne Marañónek esandakoaren arabera, ia, Arrasaten %68ko hedapena lortu zuten, eta aurten, hori hobetzeko asmoa dute.

LEKUAK ETA ORDUAK

Anbulatorioa astelehenean egubakoitzera, 09:00etatik 17:00etara egongo dira txertoak ematen. Bereiki, 09:00etatik 12:00ak arteko kontsulta berezi bat ipini dute



JULEN IRIONDO

Etxetik atera ezinda dauden pertsonak etxean bertan hartu ahal izango dute txertoa

txertoak ipintzeko. Baina ordu-tegi horretan ezin duenak arratsaldeko bostak arteko astia izango du.

Horrez gain, zenbait auzotan ere hartu ahal izango dute txertoa honako egunetan: irailak 23: astelehena, San Andresko alkatetzan. Irailak 24, martitzena, Abaroan. Irailak 25 eguaztena, Urribarriko zaharren egoitzan. Irailak 26, eguena, Santamainako zaharren egoitza. Eta, irailak 27, egubakoitza, Musakolako zaharren egoitza. Toki horie-

65etik gorakoak bolante barik joan daitezke; 65etik beherakoek bolantea behar dute derrigor

tan guztietan, eguerdiko 12:00etatik 13:00etara joan behar da.

BOLANTE BARIK

Eta, etxetik atera ezinda dauden pertsonak medikuarekin edo erizainarekin harremanetan jar daitezke txertoa etxean hartzeko.

Era berean, 65 urtetik gorako pertsonak zuzenean joan ahal dira txertoa hartzera, bolantea eskatu barik. Hori bai, 65 urtetik beherakoek medikuarekin edo erizainarekin kontsultan bolante bat jaso beharko dute.

Autoak gutxiago erabiltzearen aldeko ekimenak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Datorren astean, mugikortasun jasangarriaren aldeko astea izango da Arrasaten, eta irailaren 20an, autoen joan-etorria murriztu eta oinezkoen gunea sortuko dute Garibain. Guztia, auto bariko egunagatik.

Irailaren 22an, Europa osoan, Herrian Autorik Gabeko Eguna ospatuko dute. Hainbat arrazoi daude horretarako: jendea hausnartzera bultzatu, beste garraio motak erabiltzeko joera sustatu, eta agintariei bide horiek abian jar ditzaten aukera bat ematea. Horren barruan, Arrasaten mugikortasun jasangarriaren aldeko astea egingo da 16tik 22ra.

Nahiz eta Mondragoen arazoak oraindik ez duen hiri handien maila bera, kezkatzeko zantzuak agertzen hasi dira. Esaterako, geroz eta ibilgailu gehiago daude herrian, aparkatzeko zailtasun ugari dago egunero, edo zarataren eragina nabarmena da une eta toki askotan.

Ibilgailuen trafikoa arintzeko neurrien barruan, hiri garraio publikoa ezartzea, eskualdeko

garraio publikoa hobetzea, bidegorri sarea... abian jarrita edo proiektuan dauden neurriak dira. Hala ere, ezinbestekoa da herri-tarren parte hartzea.

BERBALDIK ETA BESTELAKOAK

Horregatik antolatu du Arrasateko Udalak mugikortasun jasangarriaren aldeko astea. Irailaren 17an, *Mugikortasuna eta ingurumena hiriguneetan* berbaldia antolatu dute, eta 19an, *Debarroan mugikortasun jasangarriago baten aldeko proiektuak: tranbia eta bide-gorrien sareak*. Biak Monterron Kultura Etxean izango dira, arratsaldeko zazpitan. Egubakoitza 20, ibilgailuen joan-etorria murriztuko da, oinezkoen gunea bat sortzeko; Maalako biribiletik Kontzezino-raino, eta Maisu Arano kalean. Egun horretan, herriko garraio publikoaren maiztasuna areagotuko dute, eta nahiz eta Garibai etorbidea ibilgailuentzako itxita egongo den, garraio publikoa bertatik igaroko da askotan.

Horrekin batera, herri autobusa erabiltzeko, egubakoitzera-ko doako bidai baterako bonoa banatuko du Udalak.



XABI URZELAI

Horrelako irudiak saihestu gura dituzte, eta jakina, ingurumena zelanbait babestu.



Harrera ona izaten ari da liburua

Uztailean plazaratu zuen Udalak *Arrasateko Emakumeak XX. mendean* izeneko liburua, eta, adierazi digutenez, etengabe, gelditu barik, ari dira liburua saltzen, espero baino hobeto, hain zuzen ere. Hori dela eta, orain artekoaren balorazio positiboa egin dute arduradunek. Gogoratu ezazue liburua Hire liburu denda dagoela salgai.

Aipatutako liburua orain arte askorik landu barik zegoen gaia aztertzen du: herriko emakumeen historia. /U.M.

LABUR

Arrogoirako bidearen gaineko azken proposamena

Monterron eta Erguin auzoak lotuko dituen oinezkoen pasealekuaren barruan, Arrogoira igotzeko bidearen azkeneko proposamena onartu du oraingo asteko Gobernu batzordeak. Besteak beste, Zarugaldeko 20 eta 22 aterietako bizilagunek egindako proposamenak kontuan hartuta eta ibilerraztasuna kontuan hartuta egin du Udalak proiektua. Horrela, adibidez, eskailerak esku-banda bikoitza izango du albo bietan, eta eskalinata, bat erdian.



XABI URZELAI

Besteak beste, Zabalguneko Etxe Txikiekin lotutako alegazioak aztertuko dituzte martitzenean.

Egitamu Orokorrari aurkeztutako alegazioen gaineko bilkura berezia

UBANE MADERA

Datorren martitzenean, hilak 17, osoko bilkura berezia egingo du udalbatzarrak. Gai bakarra izango du aztergai: Arrasateko Egitamu Orokorrari aurkeztutako alegazioak erantzutea.

Osoko bilkura luzea aurrez ikusten da datorren martitzenerako. Egitamu Orokorrari aurkeztutako 75 alegazioei erantzuna eman behar die eta udalbatzarrak.

Kontua da, Arrasateko Egitamua behin-behinean onartu eta, gero, jendaurrean ipini zutela, herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegazio asko izan ziren orduan, eta udalbatzarrak onartu egin zituen batzuk. Ondorioz, Egitamu Orokorraren aldaketa garrantzitsuak egin behar izan zituzten. Adibidez, Zabalguneko "Etxe Txikiei" dagokienez, hasie-

ran pentsatutako baino etxe gutxiago botako zituela erabaki zuen udalbatzarrak; Gelmarekin lotuta ere izan zen aldaketarik; baita Egitamu Orokorra aplikatzeko epeetan ere, besteak beste. Eta, ondorioz, txostena dezente aldatu zuten, berriro ere jendaurrean ipini zuten, alegazioak jasotzeko.

Esan bezala, jendaurreko bigarren epea pasatu da, eta, 75 alegazio aurkeztu dituzte herritarrek. Edozelan ere, Hirigintza Sailetik jakinarazi digute alegazio asko aurreko aldiko berak direla, eta beste asko gai beraren gainekoak direla. Adibidez, Etxe Txikiei buruzko alegazioak daude, Gelmari buruzkoak, Arrasateko dorre guztiei buruzkoak eta alderdi politikoek aurkeztutakoak. Herriko auzoak kontuan hartuta, Bedoña, Garagartza, Gesalibar eta Meaterreka auzoekin lotutako alegazioak ere aztertuko ditu udalbatzarrak, besteak beste.



TESTU BATERATUA

Behin alegazio guztiak erantzun eta gero, Udalak testu bateratua egin beharko du. Eta, udalbatzarrak, beste osoko bilkura baten behin-behineko onespina eman beharko dio. Hori lortu eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaliko zaio, hark behin betiko onespina emateko.

Horrela, Egitamu Orokorraren bitartez, finkatuta geratuko da zein izango den, gerora begira, Arrasateko antolamendua.

ZERGAK ORDAINTZEKO EPEA

Gaia aldatuz, baina Udaletik alde egin barik, zergadun guztiei jakinarazten zaie datorren urriaren 11ra arteko epea dagoela borondatez 2002ko bigarren hiruhileko ur eta zabor tasak ordaintzeko. Behin epe hori bukatuta, ordaindu barik dauden ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.



Arrasateetik badoazen parrokoak agurtzeko ekimenak

UBANE MADERA

Irailaren bukaeran San Andres elizako eta San Juan elizako parrokoak badoazela-eta, zenbait herritarrek bi elizgizonak agurtzeko ekitaldiak antolatu dituzte.

Jose Mari Astigarraga herriko parrokoa eta Juan Jose Goenaga, San Andresko parrokoa agurtuko dituzte herritarrek; Arrasaten 18 urte eman eta gero, On Jose Maria Azkoitira doa-eta. Berriz, Arrasaten 14 urte eman eta gero, On Juan Jose, Donostiara bidali dute.

Horrela, etzidamu, domeka, On Juan Jose Goenagaren aldeko meza esango dute San Andres-

ko parrokan, 12:30ean. Eta gero, irailaren 20an, egubakoitza, batzokian afaria egingo dute. Afarira joan gura dutenek, San Andresko Muruamendiaren gozotegian eman behar dute izena irailaren 15a baino lehen.

ON JOSE MARIA ASTIGARRAGA

Bestalde, eta Parrokiako Batzordeak antolatuta, On Jose Maria Astigarraga agurtzeko ekitaldiak ere izango dira irailaren 29an. Lehenengo, meza nagusia esango dute, 11:00etan San Juan parrokan. Eta ondoren, bazkaria egingo dute batzokian. Bazkarira joan gura dutenek Portaloiko Zabaleta lurrindegian eros ditzakete txartelak.

LABUR

Enpresen Laguntzen Programan 2002ko deialdia atera du Arrasateko Udalak

120.202 euroko aurrekontua du Udalak Enpresen Laguntzen Programarako. Kopuru horretatik, 3.606 euro emango ditu lanpostu bakoitzeko. Laguntza mota horiek eskatzea gura dutenek, urriaren 31ra arteko epea dute eskaerak Udaletxetan aurkezteko. Duela bi urte hasi zen Udala Enpresen Laguntzen Programarekin. Helburua zen herrian enplegu berriak sortzeko sustapen programa sortzea eta sortzen diren lanpostuak finkoak izatea. Bereziki zailtasun gehien dituzten kolektiboekin diskriminazio positiboa (emakumeak, elbarriak eta nekazaritzarekin lotutakoak) egitea ere kontuan hartuko dute.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Olin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

"PAL"

Burdindegia

Brikolajea

Tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE



BATZUK ERREKARI BEGIRA

Aurtengo udan errekarari begira egon denik ere izan da herrian. Euskal Herriko hainbat herritan uholdeak izan dira, eta egunotan Frantzia aldean ere ez da giro. Geurean, zorionez, ez da inongo arazorik izan, baina, badaezpada ere, ondo dago errekek zenbateko sakontasuna daukan jakin eta ura noraino iristen den jakitea. Argazkian ikusten den bezala, hemen ez dago inongo arazorik, eta benetan zaila da Deba ibaiak gainezka egitea. Hala ere, euria gogor egiten duenean, ez ezazue gure erreka begi-bistatik kendu.



CORAZÓN DE ENGINAKOAK OSPAKIZUNETAN

Extrmadura Eguna ospatzeko festa izan zuten zapatuan Corazón de Encina elkarteak. Urteroko ohiturari jarraituz, festa bikaina antolatu zuten Landako urtegiaren ertzean. Goiz partean eguraldiak ez zuen askorik lagundu, eta

antolaturiko jarduerak ez ziren nahi bezala aurrera eraman. Hala ere, Extremadurako produktuak dastatzeko aukera izan zen. Horrez gain, lehiaketak ere izan ziren: ardo onena, gazta onena... Eguraldia txarra, baina umorea ezin hobea.

SAN ISIDRO ELKARTEA 50 URTEREKIN BIZI-BIZIRIK

Musakolako San Isidro gastronomia elkarteak 50 urte bete ditu. Aitzakia ederra izan da elkartearen eta auzoaren gaineko liburua egiteko, eta egubakoitzean liburuaren aurkezpena egin zuten, elkartearen bertan. Argazkikoak Jose Luis Azkarate eta Iñaki Orue dira. Jose Luis Azkarate San Isidro elkartearen presidentea da eta Iñaki Oruek liburua egiteko ardura izan du. Gustura azaldu ziren guztiak egindako lanarekin.



AUTOBUSARI ESKER, SAREAN BARRENA

Dagoeneko iritsi da Arrasatera KZguneko autobusa. Interneten murgiltzeko aukera eskaintzen duen autobusa martitzenean iritsi zen gurera, eta egunotan arrasatear asko hurbildu dira bidaia birtuala egiteko asmoz. Herritarrak

txateatu, Internet ezagutu, jolastu edo kontsultak egiteko asmoz igo dira autobusera. KZguneko autobusa Jokin Zaitegi plazan izan da egunotan, eta gaur da Arrasaten egongo den azken eguna, oraindik herri asko daude eta autobusa ezagutu nahi dutenak.

JOSU ZUBIA/MONDRA FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Gauza bat daukat argi: aurtengo helburua preferentera igotzea da"

XABIER URZELAI

Erronka galanta dauka Mondrako entrenatzaile berriak. Goiko taldearekin lehenengo urtea bada ere, Josu Zubiaren helburua taldea preferente mailara igotzea da. Aurrendenboraldia ikusita, posible dela dirudi.

Izatez aretxabaletarra, Mondrako entrenatzailea, eta aurrendenboraldian UDARI irabazi. Zenbat buelta ematen dituen futbolak.

Bai, aretxabaletarra naiz, eta hantxe hasi nintzen entrenatzaile lanetan. Sei urte ibili nintzen Aretxabaletako futbol taldean, eta horren ondoren Arrasatera etorri nintzen. Arrasaten bost urte egin ditut talde gazteagoekin, eta aurtengo lehenengo taldea entrenatzeko ardura izango dut.

Zu ezagutzen zaituztenek futbolaz nahikotxo dakizula diote. Futbola zaletasuna ala zer bait gehiago da?


Argi dago zaletasuna dela, baina mundu horretan sartzean garrantzi handia ematen diozu. Nirekin lan egiten dutenek bada-kite entrenamendu eta partiduak intentsitate handiarekin bizi izaten ditudala. Ez dakit futbolaren gainean asko jakingo dudarik, baina egia da interes handia jaritzen dudala.

Jokalari gazteek maila polita erakutsi dute, baina erregionalean esperientziak ez ote du pisu larregi?

Bai. Gazteak sekulako ilusioarekin datoz, eta argi erakutsi dute zelaian ez direla kikiltzen. Esperientzia handiko jokalariek ere badaude, eta helburuetako bat bi gauza horiek, bateranotasuna eta gaztetasuna, ondo uztartzea izango da.

Aurrendenboraldia amaitzeko oraindik hainbat partidu geratzen dira.

Bai. Arrasate Hiria Txapelketan egin dugun lanarekin pozik nago. Horrez gain, domekan, Gasteizko Ariznabarra taldearen kontra jokatu genuen eta 1-2 nagusitu ginen. Ariznabarra taldea joan den urtean hirugarren mailara igotzeko borrokan aritu zen, hortaz, emaitza ona da. Datorren zapatuan, Juventus talde gasteiztarraren kontra jokatuko dugu, eta hori izango da aurrendenboraldiko lagun arteko azken partidua. Pozik nago egiten ari garen aurrendenboraldiarekin.



XABIER URZELAI

"Denboraldia luzea baldin bada ere, partidu bakoitza finala izango da guretako"

Hurrengo galdera derrigorez egin behar den horietakoa da. Zein da aurtengo helburua?

Nik hori oso argi daukat, eta ideia bakarra daukat buruan. Taldearen aurtengo helburua preferente mailara igotzea da, eta hori lortzeko egingo dugu lan. Aurtengo denboraldirako egin dudana

"Jokalari beteranoak eta gazteak ditugu, eta biak ondo uztartzea izango da helburua"

taldea asmo horrekin egin dut, preferente mailara igotzeko, hain zuzen. Eta ez da nire kontua bakarrik, zuzendaritzaren eta talde osoaren asmoa da hori, eta guztiok daukagu argi helburu hori lortzeko gai garela.

Ideiak horren argi izateak bere alde txarra ere badu. Akats bakoitza oso garesti

"Denboraldia ondo hasi behar dugu, eta ahalik eta akats gutxien egiten saiatu behar gara"

ordainduko duzue.

Bai, hori ere egia da. Azken baten, 24 jokalarri dauzkat, eta guztiok ere argi daukate partiduak jokatzeke astean barrena lan handia egin beharko dutela. Ahalik eta akats gutxien egiten saiatu beharko gara, eta, horrez gain, liga txapelketa ondo hastea garrantzitsua izango da.

FRONTENISA

Arrasateko Txapelketan izena emateko, garaiz

Arrasateko Frontenis Txapelketan parte hartu nahi duenak irailaren 18ra arte izango du izena emateko aukera. Horretarako interesatuek Musakolako kiroldegira jo beharko dute.

Txapelketa ibarreko frontenis-zaleei dago zuzenduta. Partiduak binaka jokatuko dira, zapatuetan, Musakolako kiroldegian. Txapelketa irailaren 21ean hasiko da, eta Debagoieneko txapelketako zirkuiturako baliagarria izango da. Arrasateko txapelketako bikote irabazleak 12 puntu eskuratuko ditu. Txapelketan bi fase izango dira: lehenengo fasea liga erara jokatuko da eta bigarren fasean kanporaketak izango dira.

FUTBOLA

Mondrak Gasteizen jokatuko du bihar goizean

Mondrak aurrendenboraldiko azken partidua jokatuko du bihar, zapatua, goizean. Partidua Olaranbeko futbol zelaian jokatuko dute, eta Gasteizko Juventus taldea izango da aurkaria. Juventus Gasteizko Aurrera taldearen filiala da, eta partidu ikusgarria izango den dudarik ez dago. Zeingehiagoka goizeko hamarretan hasiko da.

Biharko partidua izango da Mondrak aurrendenboraldian jokatuko duen lagun arteko azken partidua. Liga hurrengo asteburuan hasiko du Arrasateko taldeak, eta lehenengo aurkaria Orioko taldea izango da.

KIROLDEGIA

Barruko igerilekuak irailaren 16an irekiko dituzte

Musakolako kiroldegiko igerileku klimatizatuak datorren astelehenean, irailaren 16an, irekiko dituzte. Astelehenean egubakoitzera 08:00etatik 21:00ak arte egongo dira zabalik. Zapatuetan, 09:00etatik 13:30ak arte eta 16:00etatik 20:00ak arte. Domeketan eta jaiegunetan 09:00etatik 13:30ak arte egongo da irekita. Uda denboraldia irailaren 15ean amaituko da, domekan.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Zaldibarko Areto Futbol Txapelketako 41. aldia jokatuko da aurten

XABIER URZELAI

Aurtengo Zaldibar Txapelketa prestatzeko lanean ari dira antolakuntzakoak. Aurreko txapelketa ekainean amaitu zen, eta joan den urtean antolatze lanetan ibili zirenek aurten ere aurrera egitea erabaki dute; hortaz, aurten ere Zaldibarko pilotalekuan izango da zer ikusi.

Aurten ere herriko areto futbol txapelketaz gozatzeko aukera izango dugu. Antolakuntzakoak dagoeneko lanean hasi dira, eta aurtengo txapelketa prestatzeko buru-belarri ari dira lanean.


Txapelketan parte hartu nahi duten taldeek urriaren 8an edo 8an Monterron jauregira jo behar dute, han izango dira-eta antolatzaileak, arratsaldeko zazpietatik zortzi eta erdiak arte.

FIDANTZAK BUELATUKO DITUZTE

Joan den urtean behar den moduan aritu ziren taldeek fidantza jasotzeko aukera izango dute, eta fidantza hori jaso nahi duenak Monterron jauregira joan behar du izena emateko egunetan. Txapelketan jarraitu nahi duten taldeei fidantza gorde egingo zaie, baina dirua jaso nahi duenak ere aukera hori izango du.

Izenematearekin batera, taldeek aurtengo txapelketan izango diren arauen zerrenda bat jasoko dute.

Aurtengo txapelketa urriaren 19ko eta 20ko asteburuan hasiko da, eta ordurako antolakuntzakoek guztia gertu izango



Urriaren 19ko eta 20ko asteburuan hasiko da aurtengo Zaldibar Txapelketa.

dute. Hala ere, aurtengo Zaldibarko Txapelketa antolatzen lagundu nahi duenak jakin dezala antolakuntzako ateak irekita izango dituela.

UDALARI HAINBAT ESKAERA

Arrasateko Udalari hainbat eskaera egingo dizkiote aurten Zaldibarko Txapelketa antolatzen ari-tuko direnek.

Zaldibarko pilotalekuko zorua eguraldi txarrekin labainkorrira egoten da, eta oso arriskutsua

izaten da futboleko jokatzea. Antolatzaileek irtenbidea bilatzeko eskatuko diote Udalari. Horrez gain, aldagela batzuk jartzeko ere eskatuko diote. Pilotalekuaren atzeko aldean lekua dago, eta motxilak uzteko eta jokariak lasai aldatzeko leku aproposa nahi dute antolatzaileek.

Azkenik, pilotalekua garbitzeko eskaera ere egingo dute antolatzaileek, askotan kristalak, hostoak eta plastikoak izaten dira-eta lurrean.

FOTOKIROLA



Gimnasia erritmikoa, abian

Arrasateko Dragoi gimnasia taldea abian da dagoeneko. Joan den astelehenean batzarra izan zuten, baina oraindik ordutegiak eta taldeak ez daude zehaztuta. Bost urtetik gorako neskek garaiz daude gimnasia taldean izena emateko, eta neska kopuruen arabera taldeak eratu eta entrenamendu egunak finkatuko dituzte. Gimnasia taldearen gainean informazio gehiago nahi duenak edo izena eman nahi duenak 610 20 50 71 telefonora dei dezake. /X.U.

FOTOKIROLA



Domekan, Besaide Eguna ospatuko da

Etzi, domeka, Euskal Mendi Federakundeak Oroimen Eguna ospatuko du Besaiden. Aurten ere mendian hil diren mendizaleak gogoan izango dituzte Besaidera hurbilduko direnek. Ekitaldiak goizeko hamaikak laurden gutxiagotan hasiko dira. Lehenik eta behin, txalaparta entzuteko aukera izango da, eta jendea monumentura hurbildu bezain laster meza izango da. Horren ondoren, Euskal Mendizale Federazioko presidentek berba batzuk egingo ditu, eta, horrekin batera, bertolari eta dantzariak izango dira giroa alaitzen. Gauzak horrela, Arrasateko Mendi Elkar-tekoek domekan Besaidera joateko gonbita egiten dizute mondragoetar guztioi. /X.U.

ERRUGBIA

Arrasatek Hernanin jokatuko du zapatuan

Bihar, zapatua, Arrasateko senior mailako taldeak lagun arteko partidua jokatuko du Hernaniko taldearen kontra. Partidua Landabeko zelaian jokatuko da, arratsaldeko lau eta erdietatik aurrera.

Arrasateko talde nagusia abuztu amaieran hasi zen entrenatzen. Joan den astean, urteroko lagun arteko partidua jokatu zuten, seniorrak beterranoen kontra. Aurten, talde gaztea nagusitu da, baina beste batzuetan nagusiek ere oraindik egurra emateko gai direla erakutsi izan dute. Partiduen ondoren afaria egin zuten. Oraindik liga txapelketa noiz hasiko den ez badakite ere, Arrasateko Errugbi Taldeak seguruenik lau talde izango ditu aurten. Seniorrak, gazte mailakoak, kadeteak eta infantilak.

ELKARRIZKETA

JOSUNE ELKORO/ARANTZAZUKO ERAKUSKETAKO GIDARIA

“Arantzazuko erakusketan ez dira gai erlijiosoak bakarrik jorratzen”

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Josune hogeita hiru urteko mondragoetarra da, eta Turismo ikasketak egin zituen Donostian. Arantzazun dagoen erakusketan gidari lanetan ari da, eta han asko ikasi duela dio. Jendea hara gerturatzera animatu gura du.

500 urte dira frantziskotarrak Arantzazun daudela. Noiz ireki zen horren omeneko erakusketa?

Iaz, abuztuan zabaldu zen erakusketa, eta aurtengo urriaren 12ra arte egongo da zabalik. Hila-bete eskas, hortaz. Hala eta guztiz ere, ni ekainean hasi nintzen han lanean.

Zein da zure lana Arantzazuko erakusketan?

Hainbat lan egiten ditut han, egunaren arabera. Sarreran jendea harrera egin, erakusketan gidari gisa aritu, baita bukaeran dagoen dendan egotea ere tokatzen zait. Lan handiko eguna izanez gero, leku bakoitzean bina ordu igarotzen ditut.

Zer du berezia Arantzazuk, zure ustez?

Eraikina bera asko gustatzen zait. Baina inguruak lagundu egiten du paisaiaren edertasunean: dituen amildegiek... Hala ere, zerbaiten falta sumatzen da. Jende asko Arantzazura egun-pasa joateko asmoarekin hurbiltzen da, mendira joan, erakusketa ikusi eta bazkaldu. Baina askok ez dakite mendia bertan dagoela, eta beste bi gauzak egin ondoren planik gabe geratzen dira. Hutsune hori betetzeko zerbaiten premia dagoela deritzot.

Nongo jendea hurbiltzen da gehien hara?

Gehienbat, Euskal Herriko jendea gerturatzen da erakusketara. Baina frantsesak eta katalanak ere hurbiltzen dira, Europako beste herrialde batzuetako jende gutxi batzuekin batera; esaterako, ingelesak edo holandarrek. Gehienek Arantzazu kasualitatez aurkitzen dute. Oñatira iristen dira eta hantxe ematen diete Arantzazuren berri.

Zer aurki dezake bisitariak erakusketan?

Jendeak gai erlijiosoak bakarrik aurkituko dituela uste du, eta ez da horrela. Hainbat gai jorratzen dira: lehenengo, naturari, Arantzazuren inguruaren gaineko informazioa jasotzen du bisitariak; bigarrenik, santutegiaren beraren historia kontatzen diote; eta hirugarrenik, frantziskotarrek euskal kulturari eginko ekarpena ikus daiteke. Eta ez da gutxi! Hizkuntza beraren historia hor ikus daiteke. Erakusketarekin amaitzeko, hamabost



Z.V.M.

“Jende asko erakusketa amaierako bideoarengatik dator Arantzazura”

bat minutu irauten duen bideo bat ikusteko aukera dago. Jende askoren belarrietara iritsi da horren berri, eta asko bideoa ikustearren gerturatzen dira erakusketara.

Zein ordutegi duzue?

Bisitariendako ordutegia goizeko hamaiketan hasi eta arratsaldeko sei eta erdiak arte da, horrela, zazpietarako jendea erakusketatik irten dadin. Baina jendea gogoratu gura nioke astelehenak atsedeen-egunak direla.

Zenbat bisitaldi izaten dituzue astean?

Astean barrena jende gutxi gerturatzen da erakusketara. Eta asteburuetan, gehienez, hiru bisitaldi gidatu izaten ditugu. Gidari lanak hamar edo jende gehia-

“Jendearekin tratua izateko aukera handia eman dit lan honek, nik benetan atsegin dudana”

goko taldeekin egiten dira, gehienez jota, berrogeita hamar laguneko taldeak dira. Azken baten, jende gehiago joanez gero, azalpenak entzuteko eragozpenak izango lituzkete.

Arantzazuren 500. urteurrenaren hara gerturatzea erakargarriago egiten du?

Baietz uste dut. Arantzazuk berez dauka erakargarritasuna Euskal Herri mailan, behintzat. Beste herrialde batzuetatik gerturatzen den jendeak ez du urtemugaren berri, eta, hala ere, etortzen dira paisaiengatik, eraikinetatik, eta abarregatik. Erakusketa egun-pasarako beste arrazoi bat dela deritzot. Hortaz, jendea anima dadila gertuko historia ezagutzera.

KULTURAPILULAK

Monterrongo Pintura ikastaroak beste ikasturte bati ekingo dio irailaren 23an

Aurtengo ikasturtean ere Pintura ikastaroa antolatu du Udaleko Kultura Sailak Monterron kultura etxeko ganbaran. Ikastaroa irailaren 23an hasiko da eta irakaslea Amaia Bengoa izango da. Amaia Arte Ederretan lizentziaduna da.

Pintura ikastarorako talde mugatuak egingo dituzte, gehienez, hogeitaz osatutakoak. Eskolak lanegunetan, 17:00etatik 20:00ak artean, egingo dituzte, eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00ak arte. Izena emateko epea irailaren 16tik 20ra egongo da zabalik, eta irailetik ekainera arteko matrikula 102 euro da.

Aurten indusketa aberatsak egin dituzte Leze Txikin

IKER BARANDIARAN

Aurtengo udan Leze Txikiko kobazuloan egin duten indusketa oso aberatsa izan da. Aurkikuntza asko egin dituzte eta, horrez gain, oso informazio garrantzitsua lortu dute. Oso pozik daude, hortaz.

Alvaro Arrizabalaga, Leze Txikiko kobazuloan egindako indusketen arduraduna, oso pozik agertu zen aurrekoan komunikabideen aurrean. Izan ere, aurtengo udan Leze Txikiko koban egin dituzten indusketek oso emaitza onak eman dituzte.

AURTEN, INDUSKETA SAKONAGOAK

Aurtengoa Alvaro Arrizabalaga Leze Txikiko kobazuloan indusketak egiten aritu den hirugarren ikasturtea da, eta indusketak egiteko unean, aurreko urteetan baino gehiago sakondu dute. Horri esker, aukera izan dute Behe Paleolitikoak izan daitezkeen aztarnek aritzeko.

Izan ere, Alvaro Arrizabalagak jakinarazi zuenaren arabera, Euskal Herrian eta, are gehiago, penintsula osoan horrelako indusketak egiteko aukera gutxi egoten dira: Behe Paleolitikoko

aztarnak bere tokian bertan aurkitzea eta, gainera, haren tes-tuinguruko informazioarekin.

Alvarok azaldu zuenaren arabera, Euskal Herri osoan horrelako aukerak ematen dituen kobazulo bakarra dago, Zestoako Irrikaitz, hain zuzen ere. Leze Txikikoak Zestoakoak baino aberastasun eta material txikiagoa dauka, baina, hala ere, animalia hezur asko aurkitu dituzte eta tasazioak ateratzeko erraztasun handiagoak izan dituzte.

Goiko Kobari dagokionez, beste leku batzuetan baino animalia hezur mota gehiago aurkitu dituzte. Aurkitu dituzten artean honako hauek daude: hartz eta errinozeronteenak, hiena edo lehoiarenak izan daitezkeenak, oreinenak, zaldienak...

Zalantza barik, Behe Paleolitikoa hobeto ezagutzeko aurkikuntza oso garrantzitsua egin dute. Are gehiago, aztarnategia bere jatorrizko tokian aurkitu dutela kontuan hartuz gero.

Behin aurkikuntza eginda, hemendik aurrera horren azterketa egin beharko dute, eta aurrerago jakingo dugu zer nolako informazioa eman dezaketen jasotako elementu eta emaitzek. Horren zain geldituko gara.



SAIOA OLANDE

Lantalde polita elkartu zen uda partean Leze Txikin.

ARRASATEn TXIKITXU dantza taldearen aldeko PINTXO EGUNA

2002 - 09 - 21

Arratsaldeko 19:00



Zer jan, hura izan!

Antolatzaileak



AEDren 'Mugariz Mugarri' ekimena domekan

Errege-bidean zehar, Oñati eta Bedoña aldeko bazterrak ezagutzeko aukera

IKER BARANDIARAN

AEDk Mugariz Mugarri Arrasate Ezagutzen ekimen interesgarriaren beste txango bat antolatu du. Etzi, domeka, izango da. 08:30ean Arbolapetan batu eta lau orduko ibilbidea egingo dute Bakue, Txauta, Andra Mari Zuri, Bedoña eta Asuelan zehar.

Azken urteotako ildoari jarraituz, AEDk Mugariz Mugarri Arrasate Ezagutzen ekimenaren beste txango bat antolatu du. Etzi, domeka, izango da, eta lau orduko ibilbide horri Erregebidean zehar, Oñati aldeko bazterrak eta Bedoña ezagutzeko izena jarri diote. AEDk arrasatear eta kanpotar guztiei gonbidapena egin die domekan, 08:30ean, Arbolapetan batu eta ibilbidea egitera joan daitezten.

ARETXABALETA ETA OÑATIKO LURRAK
Ibilbidean Aranguren baserri-rantz jo eta Bakuetik igaroko dira, eta XVI. mendean Arrasatek Oñatira joateko erabiltzen zuten Asuelako errege-bidetik

ibiliko dira. Handik jarraituta, Zubibarritik igaro ostean, Oñati eta Arrasate arteko mugara iritsiko dira. Are gehiago, handik gertu, Txatetako ibarrean, Arrasateko, Oñatiko eta Aretxabale-tako lurrak ikusiko dituzte.

Txaetako errekatik gora joanez gero, bestalde, Bedoñako lurretan sartuko dira, eta hantxe inguruko baseliza zaharrena ezagutuko dute, Andra Mari Zuri gainean hainbat kontu bitxi dau-de. Horien gainean gehiago jakin gura izanez gero, domekan ibilbidea egin besterik ez dago.

Handik, Urkulu aldera joango dira eta ur sulfurosoa ematen duten urets iturri pare bat ikusteko aukera izango dute. Gero, Bedoñara bueltatuko dira, eta Mendibitzu eta Zabale baserriak ezagutuko dituzte. Aspaldi, azken baserri hori inguru hartako udal-txea izan zen. Handik gertu, Artazubiagatarren dorretxearen aztarnak ikusiko dituzte, baita 1946an sute batek erretako Malbe baserria ere. Bukatzeko, Asuelako bidegurutzera joan eta Zaldibar auzoraino jaitsiko dira. Ibilbide polita, hortaz.



'Mugariz Mugarri' ekimenak Arrasate eta inguruak ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen du.

ARRASATE EUSKALDUN DEZAGU

Gida Komertziala 2003, abian!

Aurten, berritasunez beteta

- Zerbitzu gehiago...
- Diseinu berria...
- Publizitate aukera handiagoak...


2003. urteko Gida Komertziala prestatzen hasi gara. Laster pasatuko gara zure denda, enpresa edo komertziotik.

Hurrengo egunotan, **Samin Larrañaga** publizista izango da zurean.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Samin Larrañaga

INFORMAZIO GEHIAGO: 943 71 23 91



GUREGAIK/ GAZTEEN BEHIN-BEHINEKO LOKALA

AGAKOK Altamirako behin-behineko lokala estreinatu du

IKER BARANDIARAN

AGAKOK, gaztetxeko batzarrak, dagoeneko batzar bi egin ditu Udalak Altamiran utzi dion lokalean. Gazteak gogotsu dabilta, eta, ekintzak antolatu aurretik, funtzionamendua aztertu gura dute.


Gazteen Altamirako egoitzak gela bi eta komuna ditu. Batzarrak egiteko erabiltzen dute

Udalak, uztail hasieran ospitale zaharreko gaztetxea itxi zuenean, gazteei behin-behineko lokal bat utzi zien Altamira auzoan, gaztetxe berria egin artean. Abuztuan gazteek etenaldia egin dute, baina irailarekin batera, batzarrak egiten hasi dira. Dagoeneko batzar bi egin dituzte, lehen egiten zituzten egun eta ordu berean; egubakoitzetan, gaueko hamarretan, Arbolapetan elkartu eta

ondoren, Altamira auzora igozten dira. Gazte guztiei deialdia egiten diete hara joan daitezen.

FUNTZIONAMENDUA AZTERTU

Dagoeneko gazteak hasi dira Altamirako gela biak erabiltzen, eta orain arte egindakoaren eta aurrerantzean egingo dutenaren



IKER BARANDIARAN

Gazteak egubakoitzero batzen dira Altamirako lokalean.

inguruko hausnarketa egin gura dute. Baliteke horretarako aste-buru bat hartzea. Bitartean, ate-

ra gura duten fantzinea prestatzen hasiak dira. Egubakoitzean eraman itzazue zuen proposamenak.

LOTSABARIK/ Xabi Gorostidi

“Ez naiz lotsatia, baina ezta lotsabakoa”

IKER BARANDIARAN

Xabi Gorostidik UDako futbol taldean jokatzeko du, fin-fin. Iraganen kirol kazetari izan gura zuen arren, dagoeneko iritzia aldatu du. Bestalde, lagunekin egotea gustuko du aisialdi denboran.

- Txikitan, zer izan gura zenuen?
Kazetari izan gura nuen, Asier Aranguren telebistako aurkezlearen lana gustuko nuelako. Dagoeneko iritzia aldatu dut; agian, Irakasle ikasketak egingo ditut. Ama irakaslea da, eta lan polita iruditzen zait.
- Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?
Semeekin, bikotekidearekin, baina ez konduta... Ez dakit. Mondragoen biziko nintzateke.
- Zein da, zure ustez, adin ideiala??
Esaten dute 19 urte dela adin ideala, baina oraindik ez naiz heldu. Diotenez adin horrekin askatasuna eta dirua edukitzen da.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?
Lagunei eta familiari.
- Zerk arduratzen zaitu gehien?
Etorkizunik ez edukitzeak; lan barik gelditzeak edo...
- Zerk ematen dizu lotsa?
Gauza gutxi, baina, hala ere, ez naiz lotsabakoa.

- Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?
Lagunei laguntzeko prest egoten naiz, baina burugogor samarra naiz.
- Zure gorputzeko atalik gustukoena?
Ilea, luzea daukadalako eta horrela edukitzea atsegin dudalako. Mozteko esaten didate, baina tira...
- Jendeari zeri botatzen diozu begirada lehenengo?
Lehenengo, gorputzari begiratzen diot, baina barrukoa eza gutzea garrantzitsuagoa da.
- Arrasaten ligatzen da?
Saiatuz gero bai, baina horretarako gogo handia jarri behar da. Batez ere, jaietan ligatzen da.



ADINA: 14 urte • IKASKETAK: DBHko 3. maila hasiberri • ZALDASUNAK: Lagunekin egotea eta futboleko egitea
LIBURU BAT: 'Galdu Arte' • FILM BAT: 'Braveheart' • MUSIKA TALDEA: The Clash • KIROL TALDEA: Realak

GAZTE KONTSEILUA
Arrasateko Udaleko Gazte Saila eta herriko hainbat gazte talde Arrasateko Gazte Kontseilua osatzekotan daude. Izan ere, helburua herriko gazte taldeen artean lankidetzak bultzatzea da. Joan den martitzenean, herriko hainbat talde batu ziren, eta poliki-poliki asmoak betetz joango direlakoan daude.

GAZTE TXOKOAK
Datorren martitzenean, irailaren 17an, Txatxilipurdik Musakolako eta San Andresko gazte txokoak zabalduko ditu. Oporrei agur esan eta gazte txokoek betiko ordutegiari eutsiko diote: arratsaldeko bostetan zabaldu eta iluntzeko zortzietan itxiko dituzte.

LUDOTEKAK, ZABALIK
Txatxilipurdi elkarteak kudeatzen dituen bi ludotekak, Okendo kalekoa eta Santa Mariakoa, joan den eguaztenean, irailaren 11n, zabaldu zituzten. Ordutegia 17:00etatik 20:00ak artekoa da, eta Txatxilipurdik deialdia egin du hiru eta hamabi urte bitarteko umeak hara hurrera daitezen.

LASTER, 'LARUNBLAI'
Irailaren 28an, Txatxilipurdik aurtengo ikasturteko lehenengo Larunblai ekitaldia antolatu du. 11:00etatik 13:30etara, Maraka Lantegia egingo dute herriko plazan.

ARGAZKI LEHIAKETA
Arrasateko Udaleko Gazte Sailak, aurreko urteetan bezalaxe, Gazteak eta Aisialdia goiburupean argazki lehiaketa antolatu du. Lanak aurkezteko epea irailaren 15ean bukatuko da. Informazio gehiago behar izanez gero, jo Gazte Bulegora.

BASATI TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711763

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, I - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

gorka ilepaimdegia

ordutegia:

asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00

larunbatetan 08.00 - 14.00

ferrerias, 35 arrasate

943 77 13 78

GORKA ilepaimdegia

BEHEKO KONTSESIONARIOTIK

Ana Bujanda

MEGA AUTO KONTZESIONARIXOKUE

XABIER URZELAI

Anak Enpresa-ikasketak egin zittuen, eta hainbat lanbidetan ibilli da. Saiolanen enpresa bat sortzeko lanien ibilli zan, eta hotelien be ibilli zan, zuzendari-tza lanetan. Oin dala lau urte, Mecan hasi zan lanien, familia-xiaren negoziuen, eta oingo lana be asko gustetan jako, bere saltsan ibiltten dalako.

Amets bat?

Amets asko dauket. Ametsak inportantiek die bizitzan aurrera egitteko.

Eta amets txar bat?

Gertuko pertsona bat galtzie.

Egin dozun azken biajie?

Gironara, abuztuen.

Txartel horixe, zeñei?

Johannesburg-en egon dien munduko agintarixei.

Eta gorrixen?

Bestela be nahiko egoera gorrixen daukogu.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

El golpe / Lagun izoztua / Septeto Habanero.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue.

Ze dauketzu sobran?

Jenixue.

Eta faltan?

Denpora librie.

Etxeko zapatillak ala zapat-tak?

Etxeko zapatillak.

Ze gustetan jatzu Mondra-guetik?

Herrixen daguzen parkiek.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkalekuen arazue.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Lan haundixe eukiko neuke.

Mendi bat?

Aizkorri. Dana dala, inguru honetan daguzen mendixek asko gustetan jat.



X.U.

“Renault marka berritzaillie da, horregaittik azpimarratuko neuke”

Bizi izetara hiri batera juetekotan, nora?

Donostiara.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Pertsona interesante asko daguz.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Rojo, Blanco eta *Azul* filmeen zuzendaria: Krystof Kievslovski.

Zertan gastauko zeunke dirue gustora?

Neure ingurukuei faltan daukiena emuten.

Tranpan ibiltteketan nor-baittekin, zeñekin?

Paul Newmanekin.

Renault-en iraultza dator?

“Renault-ek apustu sendue egin dau diseñuakin. Gauzek aldaketan dabitz, eta gustuek be bai”

Baietz esango neuke.

Ausarta, oingo Renault-en diseñue.

Bai, Lagunakin hasi gitzen, Avantime-aren diseñue be atrebide da, eta oin Megane barrixe dator. Gauzak aldaketan dabitz. Guggenheimek be diseñu apurtzaillie euken, eta ikusi zelako arrakastie euki dauen.

Zeun markatik ze kotxe aukeratuko zeunke?

Laguna, baiñe laster Megane barrixe dator, hortan, ezin esan.

Eta zeun markakue ez dan auto bat?

Geure kotxiei bakarrik begireketan dutziet. Renault-etan bakarrik fijeetan naz.

NIRE BIDAIA HURA / Aritz Arregi

Korsikara / 2002ko abuztuaren 3tik 25era

Aritz Arregi eta Iker Galdos udarako plana egiten hasi zirenean, berehala irten zen Korsika izena. Leku polita zela esan zieten aurreko urtean lagun batzuek, eta lurralde hura bisitatzeko aukera ona iruditu zitzaien.

Abuztuaren 3an bizikleta eta motxila bana hartu, Hendaiara joan eta bertan Toulon-erako trenara hartu zuten. Eta hantxe Bastia hirirako itsasontzia hartu zuten lagun biek.

Hara iritsitakoan, berehala ikusi zuten paisaiaren edertasuna. Bai kostak eta bai mendi aldeak txunditurik utzi zituen bi lagunak. Edozelan ere, “kostaldean turismoa izugarria da, eta denbora luzeagoa eman dugu barrualdean”, dio Aritzek.

Korsikarrei dagokienez, ez ei dute hartu-eman handirik izan, nahiz eta mendi aldeko herrixketan “zaharrek hitz jario handiagooa duten herri handietakoek baino”.

Uhartean arazo politikoa igarri egiten dela diote bi lagunak: “Kaleetan pintadak ikusten dira, esaterako, edo zirkulazio seinale askok bala-zuloak dituzte. Gainera, han geundela, independentziaren aldeko jaiak egin zuten.” Eurak joan ez ziren arren, Arrasateko eta Aretxabaletako jendea ikusi zuten independentziaren aldeko jaietan.

Lo, gehienetan, izarren azpian egiten zutela diote: “Egunez bero egin arren, gauetan freskatu egiten zuten, eta edo zein leku zen ona lo egiteko: hondartzan, erreka ertzean... Eta zenbaitetan, kanpinean”.

Herrialdea garestia dela dio Aritzek, “baina gu turista txarrak izan gara, eta ez dugu nabaritu”. Berrito joango lirakeela esan dute biek, hori bai, bizikleta alde batera utzita. “Bideak estuak baina politak dira. Hala ere, aldapa asko dituen lekua da. Berrito joatekotan mendira joango ginatete”. Itsasaldean kirola egiteko aukera paregabea ei dago: “Haize gogorra dabil han, bela egiteko aukera ematen du, baita urpekaritza-ikastaroak egiteko ere”.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



Aritzek eta Ikerrek bizikletaz eman zioten itzulia uharteari.

Herrialde berriak bisitatu dituzu udan?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.

Arrasate PRESS



ELKARRIZKETA

SERAFIN ATXA/ ERRETIRATUA

"Ortuei etorkizun laburra ikusten diet; lurrotan etxeak egingo dituzte"

XABIER URZELAI

Serafin ortuan aurkitu dugu, lan eta lan. Arrasaten asko dira denbora librean ortuan lanean igarotzen dutenak, eta beharrik izaten ez badute ere, urtero-urtero uzia onena izateko egiten dute lan; lan handia, ordain txikia.

Noiztik ortuan lanean?

Bizi izatera Soralezetik Arrasatera etorri ginenean Gorostiza baserrian izan nuen lehenengo ortua. 1970etik 1979ra arte izan nintzen Gorostiza-n, baina etxeak egin zituzten, eta leku berria topatu behar... Hurrengo urtean Meatzerekan aurkitu nuen lekua, eta ordutik hona hor nabil lanean.

Eta ortua lana ala zaletasuna da zuretzat?

Hau niretzat zaletasuna da, denbora-pasa, baina sekulako lana ematen du.

Zenbatean behin etortzen zara ortura lanera?

Eguraldiak laguntzen badu, egunero, goiz eta arratsalde. Goizetan bederatzietarako hemen izaten naiz, eta ordu batean bazkaltzera joaten naiz. Arratsaldeen aurka aldera etortzen naiz, hortziak arte.

Aspertzeko denborarik izaten duzu?

Aspertzeko?, akordatu ere ez aspertzeko! Hemen beti egoten da zerbaiteko, eta lana dagonean gaitza izaten da aspertzeko.

Orain zer daukazu landatuta?


Tomateak, porruak, letxugak, piperrak, Gernikako eta Tolosa babarrunak, lekak, eta beste gauza asko.

Urte ona izan da?

Ez, txarra. Tomate guztiak usteldu egin zaizkit, eta gainerako harazkiak ere... Bestalde, inoiz baino patata hobe daukat.

Landatutakoa beti etxerako, ala saltzeko ere izaten duzu?

Orain jasotzen dudak guztia etxerako izaten da, baina garai



XABIER URZELAI

"Ez da urte ona izan. Tomateak usteldu egin zaizkit, baina oso patata ona irten da"

baten, mordoia saltzen nuen. Behin, emaztearekin Besaide Eguna ospatu eta gero, ortura jaitsi eta 10 kilo leka jaso genituen. Guztiak saldu genituen eta orduko bi mila pezeta eskuratu genituen.

Bada zerbaite...

"Hartzen dudak guztia etxerako izaten da, baina lehen, mordoia saltzen nuen"

Bai, baina lana ederto eginda, gu apur bat majaderoak ere izan gara-eta. Lantegitik irten eta hona, astoak bezala lanera.

Egun, gazteek ez dute ortuen gainean ezer jakin gura.

Ez. Etorkizun laburra ikusten diet nik ortuei.

LABUR

Musakolako zaharren elkartearen presidente eta diruzain bila dabilza

Joan den ikasturtean, oporren aurretik, luzaroan Musakolako zaharren elkartearen presidente eta diruzain lanak egiten ibilitako Andres Indak eta Jose Bengoak kargua utzi zuten.

Hori dela eta, Musakolako zaharren batzarra kargu horiek bete-ko dituzten bi lagun bila dabil. Interesatuok, jo arratsaldeetan, 18:30ak eta 20:30ak artean, elkartera.

Toki Argikoek eta Uribarrikoek Errioxara joko dute eta Abaroakoek Hondarribiara


Irailaren 21ean, Toki Argi zaharren elkarteak Errioxara txangoa egingo dute. San Miguel de la Cogolla eta Logroño bisitatuko dituzte, besteak beste. Uribarri elkarteak ere Errioxara joateko asmoa dute, Logroño joateko; irailaren 24an joango dira. Abaroakoak, bestalde, irailaren 19an Hondarribira joango dira. Hortaz, badakizue, izenematea zabalik dago.

ZAHARRAKHOTIK

Juan Luis Lizarralde

ABAROA ZAHARRAK ELKARTEKO PRESIDENTEA

Juan Luis Lizarralde arrasatearrak 65 urte bete ditu, eta, urteak bete aurretik, Abaroa zaharren elkartearen presidentea lanetan hasi da.



Betidanik Arrasate pasealekuan bizi izan zara, ezta?

Bai. 1937an jaio nintzen, Arrasate pasealekuko 15.enean, eta han bizi gara oraindik, etxe berria egin genuen arren. Gerra denboran jaio nintzen, baina ez dut ezer gogoratzen. Gazteluondoko Eskola Nazionalan ikasi nuen, baita San Vitorren ere. Eta 13 urterekin Eskola Profesionalean Irakasletza Mekanikoa ikasi nuen.

Lana ere Arrasaten aurkitu zenuen, ezta?

Bai. 1952. urtean Elman sartu nintzen, eta hamabi urtez galdategian mekaniko lanetan ibili nintzen. Gero, 1964. urtean, Fagorren hasi nintzen, eta, lana zeharo aldatu nuen, Fagorren, erretiratu artean, komertzial lanetan nabilen-eta.

65 urte egin berri dituzun arren, aspalditik aito-

na zara...

Bai. Bost seme-alaba daukat, bi seme eta hiru alaba, eta duela gutxi bosgarren aldiz aitona izan naiz, oraingoan bikiak, gainera.


Zelatan hasi zinen Abaroako batzarrean?

Aurreko presidentek, Rosalio Zubizarretak, behin eta berriro proposatu zidan. Azkenean, lantalde polita zegoela ikusita, baiezkoa eman nuen. Margolanak eta koardernaketak egiteko zaletasun handia daukat, baina edadetan esparruan lan handia dago egiteko, eta buru-belarri gabilza.

ad **Ibabe**
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

arbolapeta
beinke
arrasate

CLUB
IYOLA
Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

 **Txitxinpe**
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



ARRASATE
Irene Dolara
Irailaren 16an, 5 urte.
Zorionak etxekoan partetik.



ARRASATE
David eta Iban López
Irailaren 13an, 17 urte. Zorionak, etxekoan partetik.



ARRASATE
Andoni Uribesalgo
Irailaren 10ean, 8 urte.
Zorionak eta muxu handi bat, etxekoan partetik.



ARRASATE
Igone Altzelai
Irailaren 14an, 20 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Rafi Jiménez
Irailaren 14an, 21 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Juan Ramón Zugasti
Irailaren 14an, 57 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Oihana Irazu
Abuztuaren 18an, 21 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Oihane González
Irailaren 16an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoan partetik.



ARRASATE
Martin Abarrategi
Irailaren 14an, urtebete.
Zorionak! Eñaut, Oier, tio eta tia.




ARRASATE
Maria Sierra
Irailaren 11n, 12 urte. Zorionak, Arrasateko politenari! Lagunak.



ARRASATE
Manoli Tena
Irailaren 13an, urtebetezeta. Zorionak, harakin eta amarik hoberenari.



ARRASATE
Ane Juaristi
Irailaren 9an, urtebete.
Zorionak, Arrasateko politenari! FamiliaRoak.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Aste honetako galdera: argazkian azaltzen den zuhaitza zein motatakoa da?
Eta non dago zuhaitz hori?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!

Aste honetako eskaintza:

Ondosol ekilore-olioa
litroko botila

0,86 € 143 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

BEGOÑA ERIZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.
Zorionak, Begoña!
Galderaren erantzun zuzena:
Abadetxearen atzeko aldea.

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasateko alde zaharraren egitura Erdi Aroan

ION ANDER RAMOS

Joan den alean ikusi genuen moduan, Arrasatera sartzeko hainbat ate zeuden. Ate horiek Arrasate herria zaintzen zuten, gaur egungo alde zaharra.

Arrasateko alde zaharrak almendra itxura dauka, eta hainbat kale eta errabalek osatzen dute. Denera, hiru kale ditu. Alde zaharraren erdi-erdian Erdiko kalea dugu. Esteban de Garibaik ere idatzi zuen kale horren gainean, 1470. urtean. Kale horren ezker aldean Udaletxea, herriko plaza nagusia eta San Juan eliza daude. Portaloitik sartu eta eskuinaldean Ferrerías kalearen hasiera dago eta ezker aldean, berriz, Iturriotz kalearen hasiera.

Esteban de Garibaik Ferrerías kalearen gainean ere hainbat idatzi egin zituen. Horri esker badakigu Ferrerías kaleak lehenago beste izen bat zeukala; Aroz kale, hain zuzen ere. Iturriotz kalea, bestalde, Resusta kalea bezala ere ezagutzen da, Jose Maria Resusta mondragoetarraren izenean.

Arrasateko alde zaharrak ondo 'daki' suak zenbaterainoko indarra daukan

Kale horiek hainbat kantoitu dituzte, baina bi dira garrantzitsuenak: alde batetik, San Juan elizan hasi eta Kontzepzioko arkuan amaitzen den kantoia, eta, bestetik, Zurgin kantoia bezala ezagutzen duguna.

Horixe da Arrasateko alde zaharra; bertako eraikinek ondo *dakite* suaren indarra zenbaterainokoa den; izan ere, herria behin baino gehiagotan berreraiki behar izan dute.

Arrasateko alde zaharra txiki geratu zenean, harresien kanpoaldean herria hazi egin zen. Orduan egin ziren Gazteluondo, Madalena eta Zarugalde kaleak, eta zabalkundearen lehena kaleak horiek izan baziren ere, ez ziren azkenekoak izan, egun, kale eta auzo askok osatzen dute eta Arrasate.



Arrasateko alde zaharrak, beste herri askok bezala, almendra itxura dauka.

XABIER URZELAI

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko irailaren 13a / 37. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com


Munduko Txapelketa prestatzen hasiko da Maider Unda borrokalari oletarra

UBANE MADERA

Datorren domekan Madrilerako bidea hartuko du Maider Unda borrokalari oletarra. Goi mailako kirolariendako ADO planaren barruan, Errendimendu Handiko Zentrora joango da; azaroan Grezian jokatu den Munduko Txapelketarako entrenatuko da.

Beste hiru neska borrokalariarekin batera entrenatuko da Maider Unda Madrilgo zentroan. Espainiako Selekzioko Francisco Barcia entrenatzailearen gidaritzapean, Grezian jokatu den Munduko Txapelketarako prestatzeari ekingo dio. Animoso dago, gainera, esan digun moduan: "Madrilgoa zelan doan ikusi behar; dena dela, ondo entrenatuz gero, iaz baino hobeto ibiltzea espero dut"; izan ere, iaz, zortzigarren lekuan geratu zen Espainiako txapeldun oletarra.

Azaroko lehen astean jokatuko da Munduko Txapelketa. Kontatu digunez, bereziki, Europa ekialdeko eta Ameriketako Estatu Batuetako borrokalariari egin beharko die aurre, handik aterahi ohi dira-eta borroka librean txapeldun izaten direnak.



JON BEREZIBAR

Abuztuan borrokaldi bi izan ditu Maiderrek Polonian; horietatik bat Frantziaren kontra, eta irabazi egin zuen.

trako irabazi egin du, eta pozik dago emaitzarekin. Edozelan ere, Maider Undaren helburu nagusia da 2004an Atenasen jokatu diren olinpiadetara joatea.

GERO, OLINPIADAK

Bien bitartean, baina, Maider Unda ez da geldirik egon. Abuz-

tuko azkenaurreko astean Polonian izan da, Varsovian. Borrokaldi bi izan ditu han, eta munduko txapeldunaren kontrakoa galdu badu ere, Frantziaren kon-

trako irabazi egin du, eta pozik dago emaitzarekin. Edozelan ere, Maider Undaren helburu nagusia da 2004an Atenasen jokatu diren olinpiadetara joatea.

Madrilgo Errendimendu Handiko Zentrora joango da, beste hiru borrokalariarekin

Munduko Txapelketa ostean, Oletara itzuliko da Maider Unda, azaro erdialdean

Edozelan ere, Maider Undaren helburu nagusia da 2004ko olinpiadetara joatea

ATREBENTZIAEZPADA/ Asko aldatu da mundua irailaren 11 ezkeror?



NURIA SÁNCHEZ
Langilea



LUIS MARIA MUXIKA
Langilea



VICTOR ALDAI
Langilea



AITOR ASTONDOA
Langilea



EDURNE ARANA
Etxekoandrea

Ez dut igarri aldaketa handirik; egunkariak ez ditut askorik irakurtzen, telebista ere ez dut larregi ikusten, hortaz, ez dut askorik igarri.

Askoz ere okerrago dago. Terrorismoa dela eta ez dela hartu dituzten neurrien aitzakiarekin, askatasun handia galtzen ari gara.

Gertatutakoak ez du nigan inolako eraginik izan. Ni, behintzat, betirri moduan nabil eta ez dut inolako aldaketarik igarri.

Hemen antzera dagoela uste dut, baina, orokorrean, dezente aldatu da. Gogortu egin da. Bush-eta apur bat larrituta-edo dabiltzala ematen du.

Katastrofe handia izan zen, baina egia da, era berean, horren inguruan gauza asko pilatu dituztela. Gauza guztiekin pasatzen da hori.

LABUR

Irailan, udako zinema eta urrian atsedean

Uztailan eta abuztuan egingutako moduan, irailan udako zinema ematen segituko dute. Horrek esan gura du domeketan beharrez, asteroko filma saioa zapatutan izaten dela, 22:00etatik aurrera. Berez, udako zinema kanpoin izaten da, baina, aurtengo kultura etxean izaten ari da. Urrian, berriz, atsedean hartuko dute. Eta azaroan, atzera ere urtean egiten den era bueltatuko dira; hortaz, domeketan izango dira pelikula saioak.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Bohika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Guruzte Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15	
11:00	11:15	
12:00	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45	
20:05	20:20*	21:05
21:00	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:00	19:45	20:00

OHARRAK

GRIPEAREN AURKAKO TXERTOA

Astehenean, hilak 16, hasiko da gripearen kontrako aurtengo txertatze kanpaina, urriaren 31ra arte. 65 urtetik gorako pertsona guztiendako eta baita gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherakoendako (diabetesa, bihotzeko, biriketako edo giltzurruneko gaixotasuna dutenendako...) da kanpaina hori. Txertoa hartzeko Aramaioko anbulatoriora joan beharko da, 09:00etatik 13:00etara. 65 urtetik gorakoak bolante barik joan daitezke; 65 urtetik beherakoak, berriz, medikuaren edo erizainaren konsultan bolante bat jaso beharko dute. Eta, etxean dauden ezinduek erizainari abisatu diezaiokete, txertoa etxean hartu ahal izateko.

ARAMAIOKO GAZTE ABESBATZA

Aramaioko hainbat neska-mutilengan gazte abesbatza osatzeko gogoa sortu denez, dei egiten zaio gazteriarri ekimen horretan parte hartzea gura izanez gero, ager dadila datorren barikuan, irailaren 20an, 19:00etatik 20:00etara kultur etxean egingo den bilerara. Bilera horretan, egitasmo hori aurrera eramateko aukera eta laguntzak aztertuko dira. Anima zaitzete, zenbat eta gehiago, hobe da-eta! Zalantzarik izanez gero, 20:00etatik aurrera telefono hauetara dei egin dezakezu: 945445175 edo 945445247

KIROLA

Errioxara eraman zuten zapatuko plater tiroketa saioko lehenengo saria

Berrogeita hiru lagunek parte hartu zuten Kurtzeta-Gain taldeak antolatutako plater tiroketa saioan. Saio probintziala izanda, edozeinendako zegoen zabalik, eta Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko eta Errioxako tiratzaileak izan ziren Kurtzetan, denak gizonetakoak. Juan Luis Nafarratek, Kurtzeta-Gain taldeko presidentek kontatu digunez, 15 plateretara jokatu zuten, eta lauk lortu zuten hamabostak botatzea. Aurreneko saria, 65 euro eta gazta, Errioxara joan zen. Bigarrena, 20 euro, txorizo iberikoa eta ardoa, Arabara eraman zuten. Eta hirugarrena, urdaiazpikoa, Gipuzkoara. Beteranoen artean, Manuel Tejero arrasatearra izan zen garaile, eta juniorretan, Gasteizko mutiko bat. Aramaioko lehenengo tiratzailea, bosgarrena izan zen (Angel Ullibarriarana). Antolatzaileak pozik geratu dira emaitzarekin, bereziki, eguraldi ona egin zuelako.




BOTEPRONTOAN/ Enrike Aspe · Barea pilota elkarteko presidentea

“Taldean jende gehiagoren inplikazioa lortu gurako nuke, ni ez naiz ondo heltzen”

Kirol taldeekin segituko dugu. Oraingoan, Barea pilota elkartea aukeratu dugu, protagonista moduan, eta Enrike Aspe izan dugu berba lagun. Hura da Bareako presidentea, entrenadorea... labur esanda, taldeko arima. Amateurretan pilotari izan da Arabako Federazioan 17-18 urte zituenetik; besteak beste, Espainiako eta Euskal Herriko txapelketetan ere ibili izan da:

Noiz sortu zen elkartea? Zelatan? 1985ean legeztau genuen taldea. Barajuenean bazegoen beste pilotaleku txiki bat, eta 1976tik aurrera han pilota txapelketa jokatzeko genuen udaberriari; hortaz, zaletasuna aspalditik dago herrian. Gero, urte askoan jende ugari pilotaleku berri baten eske ibili izan gara, *Frontoiaren Aldeko Kanpaina* izeneko taldea ere sortu genuen (80. urte inguruan) eta hor ibili ginen, danborrada eta guzti egin genuen behin. Gero, pilotalekua egin behar zela ikusi genuenean, erabaki genuen lehenbailehen taldea sortzea. 1986an inauguratu zuten pilotaleku berria. Dena dela, Barajuengo pilotalekua egin zenean atera ziren pilota zale asko... (Errasti...)
Zeintzuk sortu zenuten taldea? Gehienbat Barajuenean-eta



“Hamalau urtetik aurrerako mutikoek jarraitzea gaitza da, beste egiteko batzuek izaten dituzte”

pilotan ibitzen ginenok. Horrez gain, kulturaren aldeko mugimendua ere bazegoen, euskararen alde, jaiak antolatzen... koadrila bat zebilen. Koadrila horretatik batzuk, ingurukoak beste batzuk... Horrela sortu zen. Hasieran sei bat ginen, ez besterik. Eta, funtzionatzeko modua ere guztiz desberdina zen: apur bat jokatzeko zuten mutikoekin Legutiora joaten ginen eta astean bi bider entrenatzen ginen (4-5 urtez-edo, pilotaleku berria egin arte).
Orain, aldiz, asko zarete, ezta? Bai, 15-20 bitartean urte guztian etortzen dira, ahal dutenaren arabera; egunero entrenatzen dugu. Zazpi urtetik 14 urtera artekoak. Hortik aurrera gaitza da mutikoek jarraitzea, beste egiteko batzuek izaten dituzte.
Hortaz, jarraikortasuna... Hori da falta dena. Jarraipena

“Pilotak aukera asko ematen du. Eskuzko pilotaz eta gorengoko mailaz gain, erremintaz...”

MUSIKA

NAZIOARTEKO ABESBATZAK

Arabako Nazioarteko Abesbatzen XX. Astearen barruan, gaur, barikua, saio berezia izango da Gasteizko Printzipal Antzokian. Arratsaldeko zortzietatik aurrera, aipatutako aste horretan parte hartuko duten abesbatza guztiek kontzertua eskainiko dute, Sabin Salaberria aramaioarraren gidaritzapean. Aramaioko musikariak kontatu digunez, guztira, zortzi abesbatza etorri dira Vital Kutxak antolatutako jardunaldi horretara: Koreatik, Filipinastik, Poloniatik, Txekiatik, Bulgariatik, Esloveniatik eta Brasildik, hain justu ere.

Horrela, barikuan, Gasteizen, aipatutako abesbatza bakoitzak ordu laurdeneko saioa emango du lehenengo, eta gero, guztiek batera abestuko dute, Kontserbatorioko orkestrak lagunduta. Nazioarteko abesbatzek lau abesti interpretatuko dituzte.

Horrez gain, eta Araban daudela aprobetxatzen, astean zehar, Arabako zenbait herrietara joan dira abesbatza horiek kontzertuak ematera. Horietako bat Aramaio izan da. Horrela, eguazteenan, Esloveniako abesbatzak Aramaioko parrokiako kontzertua eskaini zuen.

ERRETRATUZAHARRA

Eskailuak
harrapatu eta
jan, Musakolan

Auzoan egoteko, elkartzeko eta tertuliak egiteko txoko bat behar zutela-eta, 1952. urtean, San Isidro elkarte dagoen eraikina eraiki zuten Musakola auzoan. Gauzak horrela, aurten, elkarte sortu zuteneko 50. urteurrena bete da. Eta hori gogora ekartzeko, besteak beste, liburua plazaratu dute auzotarrek. Han kontatzen dutenez, "1949. urtean, txikiteroek greba egin zuten, txikiteo greba, eta, horren ondorioz, elkartzeko beste leku bat bilatzen hasi ziren. Horrenbestez, elkartzeko eta tertuliak egiteko beste txoko baten bila hasi ziren". Horrela, Mojategitik, San Isidro ermitaren ondotik eta Atxaren etxeko etxabetik pasatu eta gero, San Isidro elkarte eraiki zuten Musakolan.

Baina elkarte sortu aurretik, auzotarrek bazuten euren artean elkartzeko ohitura. Horren adibide da oraingo asteko argazki zaharra. Horrela, elkarte sortu aurretik, auzoko gazteak, urtero, Mojategiko sagardian batzen ziren San Inazio



Egunean. Eta han Musakolatik pasatzen den Deba ibaian harrapatutako sarbo-eskailu goxoak jaten zituzten.

Honakoak agertzen dira goiko argazkian: 1- Patxi Garro Zaburdi; 2- Matias Sagasta; 3- Albino Arabaolaza; 4- Gregorio Arregi; 5- Mariano Barrena; 6- Lorenzo Narbaiza; 7- Angel

Sagasta; 8- Sotero Sagasta; 9- Tomás Altzola; 10- José Letona; 11- Víctor Arana; 12- Benito Etxebarria; 13- Vicente Arana; 14- Julio Otadui; 15- Eugenio Garai Makatz; 16- Simón Gruzeta; 17- Félix Garro; 18- Francisco Madinabeitia; 19- Luis Egidazu; 20- Modesto Barrutiabengoa; 21- Vicente

Zabala; 22- Pako Altzola; 23- Jose Mari Sainz; 25- Francisco Arregi; eta 26- Gregorio.

Argazkia eta informazioa: '1952-2002 urrezko ezteiak, San Isidro Labrador elkarte' liburua eta Iñaki Orue
Urtea: 40ko hamarkada

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Erdiko kalea,
Arrasateko
ardatz

Joan den asteko argazkian data bat ez zegoen ondo, argazki zaharra 1983koa zela jarri genuen-eta. Orduko argazkia zaharragoa da, baina oraingo asteko argazkia bai da 1980. urte ingurukoa.

Lehenagoko argazkietan Erdiko kalea espaloiarekin ere ikusi izan dugu, baina argazki honetan dagoeneko ez dago espaloirik. Gainontzean, kale hori ez da askorik aldatu.



≈ 1982 Etxeak ezberdin daude margotuta, eta komertzioak ere dezente aldatu dira. Lurra ere berritu dute ordutik hona.



2002 Arrasateko inguruko auzoak dezente aldatu dira azken hogeitun urteotan, baina alde zaharrean aldaketak polikiago etortzen dira.

S. CARRASCAL S.L.


Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA


Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Ile apaindegia - Edertasun aretoa
errentan ematen da.

Dituen ezaugarriengatik,
edozein negoziotarako moldagarria.
Garibai 3 bis, solairu artea. Arrasate.

Interesatuok deitu Udalatx etxe agentziara.
Maalako errabala 27, behea.



AG AMAGARA

Erdiko Kale 54 · Arrasate · 943 79 09 09

*Amagaran badago eguzkia;
beltzaran-kolorea hartuko duzu
baina ez zara erreko. Etor zaitez!*

**Maritxu Kajoiko eskaintza berezia
SOLARIUMA:**

6 saio + 1 opari = 42 € bakarrik.
Adi! Irailaren 13tik urriaren 11ra.

**Eta gainera, gure Estetika Zerbitzuak
eskaintzen dizkizugu:**

- Aurpegi eta gorputzerako tratamendu bereziak.
- Depilazioa argizari bero edo hotzarekin, tratamendu progresiboan.
- Depilazio elektrikoa Blend sistemarekin.
- Makillajea, manikura, betileen permanentea eta tindua.
- Ezpain, begi eta bekainen behin betiko makillajea.
- Medikuntza Estetikoko kontsulta eta terapia bereziak.

Ikastetxeko irakasgaien

IKASTURTEA 2002-03

laguntza eskolak



- **Matematika**
- **Hizkuntza**
- **Euskara**
- **Ingelesa . . .**

MATRIKULA EPEA ZABALIK

- ≡ Maila eta adin guztiak, eta multimedia sistemak
- ≡ Ordu-tegi malguak

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

bai & by

Arrasate
Araba Hiribidea, 4.
Tel.: 943 71 20 55

Oñati
Olakua, 14.
Tel.: 943 71 60 00

M MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA

secretaria@cim-idiomas.com • <http://www.cim-idiomas.com>

Orain Opel en,
BEZa ez da seriekoa.

- %16^{KO}
% BEZ

Corsa Diesel /Astra Diesel



Orain OPEL kontzezionariotan nahi duzun Corsa Diesel edo Astra Diesela erosterakoan, BEZaren parekoa den deskontua duzu.

Oraintxe etorri zure OPEL kontzesionariora.

Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Eskaintza hau 2002ko urriaren 31 arte luzatuko da stockean dauden Corsa diesel eta Astra diesel autobiletan, Caravan, Coupé eta Cabrio modelook izan ezik. Promozio honen deskontua, automobilaren prezioa gehi fabrikaren erantsitako aukera librearen prezioekin kalkulatu da (bi kasuetan zerga eta garratorik gabe). Informazio gehiago, zure OPEL kontzezionarioan.

Giauto

San Andrés Auzoa, 10D. Tel. 943 77 30 10.
ARRASATE-MONDRAGON